

ALEX ETA SAGU MEKANIKOAK

Testua eta irudiak: LEO LIONNI

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 27,5 cm. 40 or. 15 €.

CALDECOTT OHOREZKO DOMINA (1969)

Alex eta sagu mekanikoa (euskara)
ISBN 978-84-7681-985-2. Kalandraka - Pamiela.

Álex y el ratón de cuerda (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-309-8. Libros para soñar.

Álex e o rato de corda (galegoa)
ISBN 978-84-8464-310-4. Tras os montes.

L'Àlex i el ratolí de corda (katalana)
ISBN 978-84-16804-14-6. Llibres per a somniar.

Alex e o ratinho de corda (portugesa)
ISBN 978-989-749-076-7. Livros para sonhar.

Oihu bat entzun zen:

-Lagundu! Lagundu! Sagu bat!

Gero, burrunba bat. Katilu, platertxo eta goilarak alde guztietatik hegana. Alex arineketan itzuri zen sagu-zulorantz, bere hankatxoek uzten zioten bezain azkar...

Leo Lionniren klasiko hau, lehen aldiz 1969an argitaratua, Alex eta Gilleren istorioa da, oso bestelakoak diren bi sagu –bata hezur-haragizkoa, bestea mekanikoa- adiskidetasunak elkartuta. Ezberdin izatea ez da oztopo lagunak izateko eta abenturak eta zoriona partekatzeko.

Sagu mekanikoak ez du faltan botatzen nahieran ibiltzeko askatasuna; izan ere, etxeko neskak maite duela sentitzen du. Alexek, bere aldetik, behin eta berriz erratza eskuan jazartzen baitute, edozer emango luke falta duen maitasuna eskuratzeko.

Ilargiaren magiak ematen dio sagu koitaduari bere laguna bezalakoa izateko aukera: bere kabuz ibiltzeko gaitasunari uko eginda, besarkatua eta maitatua izatea. Azkenik, Alex ohartzen da zein iragankorra den Gilleri zioten maitasuna, eta, eskuzabaltasunez, hasiera batean beretzako zen nahi bat bere lagunarentzat eskatzen du.

Caldecott Ohorezko Dominaz saritua, album honek, collage teknikaz ilustratua eta soiltasun grafiko handikoa, ederki islatzen du Lionniren estilo artistikoa.



- **Gala:** maitasunari eta eskuzabaltasunari buruzko istorioa.
- **Gomendatutako adina:** 4 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** garai guztietako haur literaturako klasikoa; collage; "Frederick", "Igeritz", "Munduko etxerik handiena", "Urdin Txiki eta Hori Txiki" eta "Matiasen ametsa" albumen egile berarena.

Leo Lionni

(Amsterdam, Holanda, 1910 - Toscana, Italia, 1999)
Leo Lionni arte-giroan hazi zen –ama opera-kantaria izan zen; osaba Piet, berriz, margolaritza-zale handia eta oso gaztetatik jakin zuen huraxe izango zela bere zoria. Jaso zuen formakuntza, aldiz, ez zen artistikoa izan, Ekonomian doktoratu baitzen. 1931n Milanen bizitzen hasi zen eta lehen harremanak izan zituen diseinu grafikoarekin. 1939an Ameriketara joan zenean, Filadelfiako publizitate-agentzia batean, Olivetti korporazioan eta Fortune aldizkarian lan egin zuen. Artista gisako ospea ere lortu zuen eta bere margolanak galeriarik onenetan erakusten hasi ziren, Estatu Batuetatik Japoniaraino. Lionnik berak noizbait esan zuenez, "Nolabait, nonbait, arteak haurtzaroko sentimena adierazten ditu beti". Haurrentzat idatzi zuen lehen liburua ia ustekabearen sortu zen 1959an: tren-bidaia batean, zetazko paper zatiez egindako istorio baten bidez bilobak entretenitzea otu zitzaion. Halaxe sortu zen "Urdin Txiki eta Hori Txiki", eta haren atzetik mundu osoko adituek txalotutako 40tik gorako obra gehiago. Eskultore, diseinatzaile, margolari eta ilustratzaile gisa egindako merituengatik Arte Grafikoen Amerikar Institutuaren Urrezko Domina jaso zuen 1984an.

www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela.com
etxea
soiltxate@pamiela.com